

ORDAINSARI ALDAKORRA

Eta Martxoan, Besaidez gain ordainsari aldakorra ordintzeko momentua iritsi da. Ohiturari jarraituz gai honi dagokionez enpleguak hiru taldetan banatzen gara, Kutxatik gatozenak behintzat.

- **Tokatzen zaiena kobratu dutenak (ugazabak).**


- **“x” kopurua tokatzen zaienak, baina kopuru baxuagu bat kobratu dutenak edo kobratu ez dutenak “ordainsari aldakorra aldeazurretik kobratzen duten” zortedunen artean daudelako.**

Argi gera dadin: Urtero gauza bera esaten dugu baina, CDE karrera plus-a ez da ordainsari aldakorraren konturako ordain bat. Baina enpresak ordainsari aldakorrari kontzeptu honengatik jasotako kopurua kentzeko ohitura hartu du, logaritmo nepertarrak aplikatzeko ohitura hartu zezakeen bezela, ze, gogoratu beharra daukagu: Ordainsari aldakorra enpresak bere kasa erabakitzen du, inoiz hitzarmenen negoziaketan barruan sartzea ametitu ez duelarik. (BERE azenarioa da).

- **Ordainsari aldakorrik suertatzen ez zaienak.**

Enpleguak hauen artean zenbait mota ditugu berriro ere: Baten batek ordainsari aldakorrik merezi ez duela erabaki duen lanen bat egiten dutenak, postuan denbora “gutxi” daramatenak, “hara, zutaz ahaztu naiz eta” motako ugazaba daukatenak, eta objetiboak bete ez dituzten “baldarrak”...

Baten bat suertatu zaiola esan dioten kopuruarekin ados ez badago, bere buruzagiei galdetzera animatzen dugu. Hala ere, arrazoirik gabeko erantzun bat jasotzeko probabilitate altua dauka, erabilienetako bat “guzti hau Bilbotik erabakita dator” izaten ari da. Bilboko GGBB-ko departamentua zerbait esatera animatzen dugu ere.



Ezer lehen bezalakoa ez den momentu hauetan, ordainsari aldakorrari buruzko gardentasu politikoa beti bezalakoa izatea eskergarria da. Zerbaitek beti bezela jarraitzen du behintzat.

LEKUALDAKETA TXANDA BERRIA EXPANSIOAN

Aldizkaria inprentara bidaltzeko garaia iritsi denean, berriro ere lekualdaketa txanda berri baten aurrean aurkitzen gara. Oraingoan 30 bat lankide dira, gehienak Kutxakoak berriro ere.

Oraingoan ere komunikazio prozedura penagarria izan da, dagoeneko nahiko konplikatu den egoera honek berez berarekin dakarren tentsioa eta ezinegona areagotuz.

Akatsa erakunde orok bere barne daukan “txapuza portzentaiarengatik” sortutakoa bada, kontu eta dilijentzi pixka batekin komunikazio arloan hobekuntza lortu daiteke behintzat, lekualdaketa erabakiak lekualdatutako pertsonen nahiko kolpe larria suposatzen die eta gainera areagotzen ibiltzeko.

Akatsa beste zerbaitengatik sortzen bada, dudarik gabe horrek konponbide okerragoa dauka, eta enpresak horri buruz gogoeta bat egin beharko luke.